



Jean Garin

Gizona bihar,
munduan zehar,
maitasun bidez
abiatuko da,
zuzentasun legez.
Eta guretzat,
Euskalerrian,
zuzentasuna
deitua izanen da
Askatasuna!

Zoritxarrez, zenbat Herri,
gu bezala, preso bizi . . .
Herri umil garelakotz,
afruntuz gaituzte hazi . . .
Xuti gaiten, xuma denak,
ta gu, hemen, Euskaldunak!
Gure borroka ez da ez galdua!

*Gure erku alkatuez
dugu ikurrina forko*
Deu

Baxenabar, Lapurdi eta Xuberoa'n
nik ez dakit jendea zeri buruz doan;
euskara itotzea hartu du gogoan,
ezagutza gabeen urgulu zoroan.

Sumatuz euskaldunak, ospetsu nahian,
guretik deus ez duen hizkuntza mihian,
sofritzen egoiten naiz horien erdian,
gutaz ahalgetua, nigarra begian.


Bertzerenaz beztituz haundi esperantzan,
garenaz bertze zerbait nahi dugu izan,
bururat eman gabe, haunditzeko plazan,
gure aments zoroak norat garamatzan.

Amenstu leku hortan heltzen gerenean,
egizkoaren hatsa galdurik bidean,
leize bat eginen da gure giblean,
amentsak er'ez baitu iganen airean.

Nehoz etzeraukula, nik ez dut etsiko,
gure kontzientzia atzartzen hasiko;
egungo balentriak ez baitu betiko
odolaren mintzoa ixilaraziko.

Guk uste baino lehen jin daike eguna,
euskaldun deit gaitzaten nahiko duguna:
ehortzi duguneko lur pean hain barna
euskaldun izaiteko gauza beharrena.

Nehoz ez gitaizke gu egizko frantsesak,
euskaltasuna berriz joa azken beltzak;
bilakatu beharrak gaitu gu amentsak
arimarik gabeko izaite deus ezak.




Egunsenti Hura,
laster altxa dadila
lur gamera !...

Zango-azpiak larrutuak ta gorputzak ezinduek,
belariek joko dute Askatasunaren Lurra!
Itसान ondatutik galdutako marinelak,
fortunazko ontzietan sartuko dira kalarai!
Nahigabearen zerga ordaindu duten anaiak,
zorionaren tabernan berak mozkortuko dira!
Indar guziz dardaraka emaitzarraren gorputzak
Len aldikoiz gozatuiko maitasunaren ikara!
Gure egun, asteak kolore galduek jauntzi eta
biziko urratsek betiko uda ezagutuko!
Malkoz hazitako gure lzaitearen loreak
bere usain gozoa du bazterretan zabalduko!
Laborari ezinduen esku gogor higituek,
ereindako hazia fruitua berek bilduko!
Langileek alkatuta, lan tresnetaz jabetuak,
lanegien oisa dute kantu biakazako!
Gurutzearen bidean landatutako hobeak,
ondokozentzat baitute bide ona urratuko!
Etixera itzuli eta desterruan diran haiek,
gure esku alkatuez dugu ikurriña josko!
Urrutira entzuten da goiz-ahabarren kantua ...
Goiz-argiko lehen suak gorritzen mendiartea ...
Itasoa barneit sortzen ur-oldeen aserrea ...
Uzkaltzeko zorian da zapaltzaileen ontzia !...



«...Nehetz ez zeraibula, nik ez dut etriko
gure kontzientzia atzartzen herriko ...»

Putab



Mario Gachi

Musika antolatzaileak:

Jean Garin - Mario Gachi

Musikariak:

François Jimenez - Gérard Luc

Mario Gachi - Jean Garin

Argazkilaria:

Filipe Velez

Zintan hartzaile:

Studio H.M. Mifranka

ELK 31 Y